



**ABANTO  
ZIERBENA**  
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría  
Avda. El Minero, 2  
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia  
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98



innpulso

Ciudad de la Ciencia  
y la Innovación  
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

## IRAGARKIA

ABANTO ZIERBENAKO OSTALARITZA ETA DENDETAKO ERROTULUAK EUSKARAZ EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUPETZEKO UDAL ARAUDIRAKO ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA.

Ostalaritza eta dendetako errotuluak euskaraz egiteko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza sortu nahi da, kontsumitzaileen eskubideak bermatzeko eta herriko paisaia euskaldunagoa izatea errazteko.

Aintzat hartu da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 133 artikulua honako hau ezartzen duela: "Legearen edo erregelamenduen proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunen webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.
- Arauaren helburuak.
- Bestelako aukerak, erregulatuzaileak eta ez-erregulatuzaileak".


## ANUNCIO

CONSULTA PREVIA ORDENANZA REGULADORA DE LAS AYUDAS ECONOMICAS PARA LA ROTULACION EN EUSKERA EN COMERCIOS Y HOSTELERIA DE ABANTO ZIERBENA

Resultando que se tiene interés en la elaboración de la ordenanza reguladora de las ayudas económicas para la rotulación en euskera en comercios y hostelería de Abanto Zierbena, con el objetivo de garantizar los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y de facilitar que el paisaje lingüístico del municipio sea más euskaldun.

Resultando que el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establece que con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- Los objetivos de la norma.
- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.



Garatu beharreko araudiaren deskribapena:

- a) Egitasmoaren bidez konpondu nahi diren arazoak

Ordenantza berriaren bidez, Abanto Zierbenako udalak komertzioetako errotuluak soilik erdaraz izatea ekidin nahi du, horretarako errotulu hauek euskaraz edota elebietan izan daitezen diru-laguntzak bideratuz.

- b) Onesteko beharra eta aukera

Aintzat hartuta hurrengo urtean diru-laguntza hauetarako deialdia egin nahi dela, Abanto Zierbenako Udalaren helburua da ordenantza indarrean egotea urteko deialdia antolatzen hasi aurretik.

- c) Arauaren helburuak

Ordenantza honen helburua da ostalaritza eta dendetako kanpoko errotuluetan euskara erabiltzeko diru-laguntzak bideratzea.

Horrela, merkataritza eta ostalaritzaren eremuan euskararen erabilera sustatzea bilatu nahi da, ESEPen jasota dagoen legez. Neurriaren bitartez udalerriko hizkuntza-paisaian eragin nahi da, aldi berean, kontsumitzaileen eskubideak bermatuz.

Descripción de la norma a elaborar:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa

A través de la nueva ordenanza el ayuntamiento de Abanto Zierbena pretende evitar que las nuevas rotulaciones de comercios sean exclusivamente en castellano, habilitando para ello una serie de ayudas dirigidas a que estas rotulaciones sean en euskera o en bilingüe.

- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación

Teniendo en cuenta que para el próximo año está previsto convocar este tipo de ayudas, el objetivo del ayuntamiento de Abanto Zierbena es tener la ordenanza en vigor antes de comenzar con la elaboración de dicha convocatoria.

- c) Los objetivos de la norma

La presente ordenanza tiene como objetivo la concesión de ayudas económicas a establecimientos mercantiles y hosteleros ubicados en el municipio por la utilización del euskera en los nuevos trabajos de rotulación exterior.

De esta manera, se pretende impulsar el uso del euskera en el ámbito del comercio y de la hostelería, tal y como viene recogido en el ESEP, incidiendo así en el paisaje lingüístico del municipio y garantizando los derechos lingüísticos de los consumidores y las consumidoras.

d) Bestelako irtenbideak, arauen bidezkoak nahiz araurik gabeak

Aldakorrak izan daitezkeen irizpide subjektiboen mende ez egoteko, ostalaritza eta dendetako errotuluak euskara egiteko diru-laguntzen emakida Ordenantzaren bidez arautzea proposatzen da.

Garatu nahi den araua: Abanto Zierbenako ostalaritza eta dendetako errotuluak euskaraz egiteko diru-laguntzak araupetzeko udal araudia.

#### **Hiritarren ekarpenak:**

Aldez aurretiko kontsulta publiko honetan parte hartu nahi duten pertsonak, erakundeek edo elkarteek telematikoki egin ahal dute hurrengo helbidera mezu bat bidaliz irailaren 27ra arte (barne): [participa.ordenanzas@abanto-zierbena.eus](mailto:participa.ordenanzas@abanto-zierbena.eus). Azpimarratu behar dugu ekarpen horiek onartu ahal izateko eta aztertuak izateko, pertsona guztiak identifikatu beharko direla honako datuok adieraziz: Izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias

A fin de no depender de criterios subjetivos que pueden ser variables, se propone regular mediante Ordenanza la concesión de ayudas económicas para la rotulación en euskera en comercios y en la hostelería.

Norma que se pretende elaborar: Ordenanza reguladora de las ayudas económicas para la rotulación en euskera en comercios y hostelería de Abanto Zierbena.

#### **Aportaciones ciudadanas:**

Las personas, organizaciones o asociaciones que quieran realizar aportaciones en esta fase de consulta pública previa pueden hacerlo telemáticamente hasta el 27 de septiembre (incluido), enviando un email a [participa.ordenanzas@abanto-zierbena.eus](mailto:participa.ordenanzas@abanto-zierbena.eus). Es importante reseñar que para que dichas aportaciones sean admitidas para su posterior análisis será requisito necesario la identificación de la persona, indicando: Nombre y apellidos, DNI, dirección, teléfono y correo electrónico.